

2019ko APIRILAREN 1ean UDALBATZARRAK EGINDAKO APARTEKO OSOKO BILKURAREN AKTA **5 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2019ko apirilaren 1ean, arratsaldeko ordu bat eta erdietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen aparteko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Jesus Arana Gome jn. Maite Garrastazu Aranguren and. Nekane Iribar Iriondo and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Gloria Vazquez Herranz and. Ana De Benito Sanz and.
Ez dira etorri	Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Aitor Korta Etxabe jn. Ane Arruti Lopetegi and. Patxi Elola Azpeitia jn. Oihane Delgado Pita and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Karmele Lizaso Ubera and.

Bilkurari hasiera emanda, **batzarburu** jaunak adierazi du bilkura apartekoa dela eta horren arrazoia dela, hain zuzen ere, hauteskunde-mahaietarako kideak izendatzeko presa.

Ondoren, eguneko aztergai bakarra aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

Bakarra.- HAUTESKUNDE-MAHAIETARAKO KIDEAK IZENDATZEA

2019IE150001 espedientea

2019ko apirilaren 28an Gorte Nagusietarako egingo diren Hauteskundeetarako mahaiak osatuko dituzten mahaikideak izendatzeko zozketa hasi aurretik, **idazkari** andreak irakurri egin du jarraitu beharreko prozedurari buruz berak prestatutako txostena.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzkoak, ezarritakoaren arabera, Udalek izendatu behar dituzte 2019ko apirilaren 28an Gorte Nagusietarako egingo diren Hauteskundeetarako hauteskunde-mahaikideak.

Artículo 26

1. La formación de las Mesas compete a los Ayuntamientos, bajo la supervisión de las Juntas Electorales de Zona.

2. El Presidente y los vocales de cada Mesa son designados por sorteo público entre la totalidad de las personas incluidas en la lista de electores de la Mesa correspondiente, que sepan leer y escribir y sean menores de setenta años, si bien a partir de los sesenta y cinco años podrán manifestar su renuncia en el plazo de siete días. El Presidente deberá tener el título de Bachiller o el de Formación Profesional de segundo Grado, o subsidiariamente el de Graduado Escolar o equivalente.

3. Se procede de la misma forma al nombramiento de dos suplentes para cada uno de los miembros de la Mesa.

4. Los sorteos arriba mencionados se realizarán entre los días vigésimo quinto y vigésimo noveno posteriores a la convocatoria.

Guztira 28 mahai osatuko dira, barrutiz barruti zein sekzioz sekzio honela banatuta:

Barrutia Sekzioa	Mahaia	Hautesleak
1-1	A	781
1-1	B	757
1-2	A	514
1-2	B	492
1-3	A	481
1-3	B	536
2-1	A	647
2-1	B	620
2-2	A	763
2-2	B	732

2-3	A	751
2-3	B	806
2-4	A	702
2-4	B	678
2-5	A	581
2-5	B	627
2-6	A	678
2-6	B	732
2-7	A	516
2-7	B	464
2-7	C	326
2-8	A	778
2-8	B	791
2-9	A	687
2-9	B	732
2-10	A	538
2-10	B	531
2-11	U	925
GUZTIRA		18.166

Mahai bakoitzerako mahaiburua, 2 mahaikide eta horietako bakoitzaren 2 ordezeko izendatu beharra dago, hau da, mahai bakoitzeko 9 pertsona. Zarautzen guztira 252 lagun behar dira.

Zozketa ausazko moduan egingo da, Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) "CONOCE" programaren bidez.

Gai hau dela medio osoko bilkura gehiago egin behar ez izateko, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU: norbait baztertzen bada edo kanpoan geratzeko aitzakia onartzen bazaio, kasu horretan, egindako zozketan hurrena dagoen lehenbiziko pertsona izendatuko da, beti ere kargua betetzeko ezarritako baldintza guztiak betetzen baditu.

Era berean, eta prozedura arintze aldera, Udalbatzarrak Tokiko Gobernu Batzarrari UTZI DIO hauteskunde-mahaikideen zozketa egiteko eskumena.

Zozketan bertan kargu bakoitzeko bederatzi ordezeko izendatuko dira hutsunerik gertatzen diren kasuetarako.

Ondoren, eta ezarritako formaltasun guztiak beteta, datorren apirilaren 28an hauteskunde-mahaiak osatuko dituzten pertsonak izendatzeko zozketa egin da.

Akta honekin batera dago, eranskin gisa, 28 hauteskunde-mahaietako bakoitzerako izendatutako pertsonen zerrenda.

Eta aztertzeke besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, arratsaldeko ordu biak laurden gutxiagotan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.